



Ibilbide honek hainbat jaitsiera dibertigarri batzen ditu, arreta eta maitasun handiz zainduak beti ezinhobeak egon daitezzen.



DESKRIBAPENA

IparTrails ibilbidearen hasiera Jauntsarats kiroldegian dago, eta bidexka labur baten ondoren, eguneko lehen igoerarekin hasiko gara, Berueteko sagardotegietaraino, pagadi eta harizti ederrak zeharkatuz. Erretzeko Bordaren garaieran lautada batera aterako gara basotik ateratzean, atsedena, atzean ditugun bista zoragarriak ikusteko aprobe txatu dezakegu.

Hemendik aurrera, hormigoizko arrapala gogor batek itxaroten gaitu Txaseneko Bordara igotzeko, gero goraka doan pista hartzeko, zeinak oso ikuspegi onak eskainiko dizkigun Irurtzongo Bi Haitzpe eta Aralarko San Migel aldera. Apurka-apurka, bidea bidexka eder batean bihurtzen da, Atomiko bidera sartzeko aukera ematen diguna. Ibilbide anitza, zona itxiekin, gune teknikoak, inklinatuak, etab. ondo pasaraziko dizkigutenak.

Pistara heldu ondoren, Atomikorekin jarraitzeko zeharkatu beharrean, ezkerretara joko dugu eta harrobia pasa ondoren, bidexka eder batetik igoko gara Basajaunera iritsi arte. Puntu honetan, bidexka jarraitu dezakegu kurba eta jauzien festan sartzeko, Jauntsarats eta Beruete arteko errepidean amaitu arte, non 2,5 kilometroz jarraitu beharko dugun Beruete herrira iritsi arte.

Beruetetik sagardotegietara itzultzen gaituen errepidea hartuko dugu, Oorte ingururantz aldapa gogorrak igotzen jarraitzeko, Baxurde-ra sarbidea emango diguna. 2018. urtearen bueltan Basaburua MTBtik ireki zen lehen bidea da. Baso garbiketaren ondorioz hainbat aldaketa izan ditu, eta, beraz, batzuetan zaila izaten da ibilbidea jarraitzea. Gaur egun, Baxurdek Akerbeltzen azken zatiarekin bat egiten du eta honen azpiko zatitik jarraitzen du.

Behin errepidera irtenda, berriz ere errepidetik igoko gara, baina oraingoan Lauburu aldera, IparTrails bukatzeko, jaitsiera fisikoa duen flow saioa, baina oso dibertigarria. Honen amaieran, hasierako puntura itzuliko gara errepidearekiko paralelo doan bidexka eder batetik.



BIDEXKAK ETA HAUEN EGOERA

